

Nire ametsetako urtebetetze eguna

Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua

Gure gizartean ospakizun ugari daude finkatuta: herriko festak (zaindariarenak, inauteriak...), egutegiak edota erlijioak ezarritakoak (Aste Santua, Gabonak, santuen egunak, bataioak, jaunartzeak, ezkontzak, kintoen urteurrenak), ezkontzak eta abar. Komentatu ikaskideekin:

- a) Noiz hartu duzu parte azken aldiz ospakizun batean? Zeinetan?
- b) Zein duzu gustukoa, zein ez? Arrazoitu.



1- Urtebetetzeak

Entzun “Nola ospatu urtebetetzeak” izeneko audioa. Bertan urtebetetze-eguna ospatzeko proposamen batzuk egiten dira. Behean duzun zerrendatik gehienak aipatzen dituzte esatariek, baina badira bi sobera daudenak. Adierazi zeintzuk:

- | | |
|--|---|
| 1) Lagunekin festa bat egitea <input type="checkbox"/> | 5) Jatetxe dotore batera joatea <input type="checkbox"/> |
| 2) Bidaia bat egitea <input type="checkbox"/> | 6) Orduero urtebetetzea ospatzea <input type="checkbox"/> |
| 3) Dantzaleku batera joatea <input type="checkbox"/> | 7) Eguna hausnartzen pasatzea <input type="checkbox"/> |
| 4) Paratxutean salto egitea <input type="checkbox"/> | |

Irakurri audioaren pasarte labur hau eta erreparatu nabarmendutakoari:

ESATARIA. Amaia, hori gustagarria da baldin eta zu tipo edo tipa formala eta antolatua bazara. Aldiz, zure asteburuak nahiko okupatuta eta fundamentu handirik gabe baldin badauzkazu, opari hori da...

Jarri taldeka. Irakurri urte berriari harrera egiteko ospakizunak nolakoak diren egokitu zaizkizun herrietan, eta konparatu tradizioak: (ERANSKINAK)

*Adibidez: Urte berriari ongi etorria emateko, txinatarrak kalera ateratzen dira gauerdian. Perun eta Brasilen, **aldiz**, hondartzara joaten dira urteari harrera egitera.*

Kontuan hartu: **Aldiz** lokailuak aurkaritza adierazten du. Normalean perpausaren erdian jartzen da, koma artean, baina hasieran ere jar daiteke. Lokailu honen baliokidea da **berriz** lokailua.

- Gaztetan lagunak ospakizun guztietara joaten ginen; orain, **aldiz**, ez.
- Aneri asko gustatzen zaio urtebetetze-egunean afaltzera joatea. Xabierrek, **berriz**, gustukoago du lagunekin elkartzea.

- A) Zortea emateko, zer egiten duten Italian eta zer Danimarkan.
- B) Urte berriari harrera egiteko nora joaten diren Brasilen eta nora Hegoafrikan.
- C) Urtezahar-gauean zer egiten duten Perun eta zer Eskoziari.
- D) Urtezahar-gauean zer janzen duten Perun eta zer Hegoafrikan.
- E) Urtezahar-gauean kalean zer egiten duten Txinan eta zer Hegoafrikan.

Irakurri herri horietako tradizioak osorik eta komentatu talde handian:

- Zer iruditzen zaizue deigarriena?
- Beste herriren bateko tradizioak ezagutzen duzue?
- Zer egiten dugu Euskal Herrian?



Euskaltegian ospatuko dugu gure urtebetetzea. "Nola ospatu urtebetetzeak" audioan egin diren proposamenen antzera, ikaskide guztien urtebetetzeak ospatzeko proposamena egingo dugu guztion artean. Horretarako, jarraitu beheko urratsak:

- 1) Bakoitzaren jaiotegunaren arabera elkartu: hilabete berean jaiotako kideak elkartu.
- 2) Zuen urtebetetzeak ospatzeko egun jakin bat adostu.
- 3) Proposatu nola ospatu urtebetetzea gainerako ikaskideekin.
- 4) Aurkeztu talde handian eta bozkatu originalena.
- 5) Opakizunak egin eta gozatu!

2- Zein da zure ametsetako urtebetetze-eguna?

Ikusi bideoan nola erantzun dion galderari Zuriñe Maguregik eta idatzi foroan: zuri nolako urtebetetze-eguna gustatuko litzaizuke? Irakurri zure ikaskideen azalpenak eta komentatu.



Kontuan hartu: *Gustatuko litzaidake* askotan erabiltzen dugun formula da eta gustuko duguna ekintza bat denean, euskaraz, ekintza hori adierazten duen aditzari beti **-t(z)ea** bukaera eranstean diogu: “*Niri gustatuko litzaidake* egun horretan eguraldia *enkargatzea*”.

3- Lexikoa

Ikusi “*Kermanen familia berria*” bideoa eta osatu araua:

Ospatu aditza gertaera pozgarriekin erabiltzen dugu. Horrenbestez, jaiak eta urtebetetzeak _____ egingo ditugu, baina bilerak eta bestelakoak _____ egingo ditugu.



Jarri aditz egokia (ospatu, egin/eman/izan) jarraian eskaintzen zaizkizun perpausetan:

- 1) Alabaren urtebetetze-eguna _____ genuen atzo.
- 2) Herriko arraun-taldeak irabazitako lehenengo saria _____ dute elkartean.
- 3) Udalean bilera garrantzitsua _____ dute aurkeztu diren proiektuak ontzat emateko.
- 4) Errefuxiatuen aldeko batzarra _____ da gobernu kanpoko erakundeen eskariz.
- 5) Ezkontzaren 10. urteurrena _____ zuten senide eta lagunekin.
- 6) Herri horretan urtarrilean _____ dituzte inauteriak.
- 7) Batzorde bat osatu da auzoan eta lehenengo bilera _____ zuten atzo.
- 8) Apaizak meza _____ zuen hildakoaren omenez.
- 9) Datorren astean Literatur Astea _____ da Tolosan eta idazle ugari bertaratuko dira.
- 10) Eguraldia ez zen traba izan eta pozik _____ zuten umeen eguna.

Entzun audioa eta adierazi jarraian dituzun elkarrizketetan akatsak non dauden:

- Aizu, Nerea, gogoratu gaur Markelen zorionak direla. Nik goizean zoriondu dut.
- Eskerrak esan didazun! Ahaztua nuen!

- Nire urtebetetzea da, baina ez diot inori esan...
- Zorionak, neska! Nola ez didazu abisatu? Nire zorionak hurbiltzen direnean jakinaraziko dizut.

- Badakizu zer oparitu didaten nire zorionetan?
- Arropa?
- Ez, mugikorra.



Gero eta gehiagotan zorientzen dugu mezu bidez, irudi bat edo bideo bat bidalita. Ikusi Gorane eta Andoitzen bideoa eta partekatu foroan zuk daukazun baten bat.

Komentatu ikaskideen artean:

- Inoiz zoriondu al dizuete urtebetetze eguna modu xeibre batez?
- Inoiz ospatu al duzue modu bitxi batez?

ERANSKINAK




Italia: dilistak dira Italiako plater nagusia urtezahar gauean. Zortea eta aberastasuna ematen dutela uste dute. Gainera, zenbat eta gehiago jan, diru gehiago edukitzeko eta zoriontsuago izateko aukera dago.



Peru: barneko zenbait arropa alderantziz janzten dute, eta hondartzara joaten dira urte berriari harrera egitera. Gainera, ohikoa da eskuz panpinatxoak egitea, urte osoan hedabideetan azaldu diren politikari, famatu edo artisten aurpegiak ipinita. Gainera, panpinatxoak objektu zaharrek bezalakoak betetzen dituzte. Ondoren, sutara botatzen dituzte, urte zaharra erretzeko, eta berriari harrera egiteko.



Hegoafrika: Urtezahar-egunean mozorroak janzten dituzte. Jantziekin hainbat pertsonaia gogoratzen dituzte, eta urte berriari ongi etorria kalean ematen diote; musika nonahi entzuten da.



Danimarka: platerak hartu eta lurrera botatzen dituzte auzokoaren atearen ondoan. Zorte ona eta laguntasuna adierazten ditu.



Eskozia: galipotez betetako barririk hartu eta su ematen diete. Kalejiran ibiltzen dira haiekin, plaza erdira botatzen dituzten arte.



Txina: gauaren erdian kalera ateratzen dira urte berriari ongi etorria emateko. Ohikoa da petardoak eta trakak erretzea.



Brasil: uretan sartuta aurreko urteko oroitzapenak gogoratzen dituzte. Uda denez, hondartzak izaten dira urte berriari harrera egiteko toki egokienak. Loreak eskaintzen dizkiote itsasoari. Su-festak ere egiten dira eta festa egiten dute gauean, musikak lagunduta.

1- Urtebetetzeak

- 3 eta 5 ez ditu aipatzen.

a) Zortea emateko Italian dilistak jaten dituzte. Zenbat eta gehiago, hobeto. Danimarkan, berriz, platerak lurrera botatzen dituzte auzokoaren atearen ondoan.

b) Brasilen hondartzara joaten dira eta loreak eskaintzen dizkiote itsasoari. Hego Afrikan, aldiz, kalera irteten dira mozorrotuta, eta musika nonahi entzuten da.

c) Peru hondartzara joaten dira urteari harrera egitera, eta panpinatxoak egiten dituzte jende ospetsuaren aurpegiak ipinita. Panpinak objektu zaharrekina betetzen dituzte eta sutara botatzen dituzte. Eskozian, aldiz, galipotez betetako barrikak hartu eta su ematen diete. Kalejiran ibiltzen dira haiekin plaza erdira botatzen dituzten arte.

d) Peru barneko arropa alderantziz jazten dute. Hegoafrikan, berriz, mozorrotuta ateratzen dira kalera.

e) Txinan gauaren erdian kalera atera eta petardoak eta trakak erretzen dituzte. Hego Afrikan, aldiz, mozorrotuta musika jotzen ibiltzen dira

3- Lexikoa

Ospatu aditza gertaera pozgarriekin erabiltzen dugu. Horrenbestez, jaiak eta urtebetetzeak ospatu egingo ditugu, baina bilerak eta bestelakoak egin egingo ditugu.

1. ospatu / 2. ospatu / 3. egin / 4. egin / 5. Ospatu / 6. Ospatzen / 7. Egin / 8. Eman / 9. Izango / 10. ospatu

- Aizu, Nerea, gogoratu gaur Markelen zorionak direla. Nik goizean zoriondu dut.

(urtebetetzea/urtemuga dela)

- Eskerrak esan didazun! ahaztua nuen!

- Nire urtebetetzea da, baina ez diot inori esan...

- Zorionak, neska! Nola ez didazu abisatu? Nire zorionak hurbiltzen direnean jakinaraziko dizut...

(urtebetetzea/urtemuga denean)

- Badakizu zer oparitu didaten nire zorionetan? **(urtebetetzean/urtemugan)**

- Arropa?

- Ez, mugikorra!